



GARAPENERAKO LANKIDETZA BATZORDEAREN BILERA

Lekua eta data: Leioa, 2013ko abenduaren 17a

Hasiera-ordua: 10:00

Amaiera-ordua: 12:00

Batzordeburua:

Iratxe Amiano andrea (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

Idazkaria:

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

Bertaratutakoak:

Batzordekideak

Luis Guridi jauna

Joseba Sainz de Murieta Mangado jauna

Imanol Zubero jauna

Batzordekide ez direnak

Mara Macho andrea

Etorri ez direnak

Maite Zelaia andrea

Anaut Patterson Mendiola jauna

Khalil Ould Said jauna

Maria José Maeztu andrea

Joseba Zuazo Olozaga jauna

Koldo Unceta Satrustegi jauna

Aztergaien zerrenda:

1. Aurreko aktak onartzea.
2. 2014ko lehen hiruhilekoko lan-plangintza.
3. Eskari-galderak

Akta

Iratxe Amiano andreak, Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, hasiera eman dio bilerari.

Lehen aztergaia: Aurreko aktak onartzea.

Garapenerako Lankidetzaren **2013ko ekainaren 20ko bilerari**



dagokion akta onartu da.

Bigarren aztergaia: 2014ko lehen hiruhilekoko lan-plangintza.

Iratxe Amiano andreak proposamen bat mahairatu du garapenerako gizarte-erakundeak, boluntarioak eta UPV/EHU batuko lituzkeen jardunaldi bat antolatzeke asmoz. Bilerara bertaratu diren batzordekideek aho batez onartu dute batzordea arduratzea jardunaldi horren antolaketaz.

Jarraian, bi agiri aurkeztu dira. Euskadiko GGKEen Gipuzkoako batzorde koordinatzailearen Garapenerako Hezkuntza lantaldearen bileraren aktak dira; izan ere, aipatutako batzorde koordinatzailea lanean ari da Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzarekin batera jardunaldia prestatzen.

Agiria irakurri eta UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Batzordeko kideek gogoeta egin ostean, ondokoak erabaki dituzte:

1. Euskadiko GGKEen Gipuzkoako batzorde koordinatzailearekin batera, **Unibertsitatea eta Gizarte Mugimenduei buruzko I. lan-bilera antolatzea. Unibertsitate kritikoago eta konprometituagorantz (Gipuzkoako Campusa)**
2. **2014ko urtarrilaren 22ko data** eta Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola aukeratzea jardunaldia egiteko.
3. Jardunaldia prestatzea, unibertsitatearen esparruaren barruan, gizarte-eraldaketaren alde lan egiten duten gizarte-eragileentzat: ikasleak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, institutuak, katedrak eta beste unibertsitate-erakunde batzuk, Ikasle-kontseiluak, (G)GKE, gazteen antolakundeak eta beste zeinahi gizarte-mugimendu.
4. Jardunaldiaren **helburutzat** ondokoak hartzea:
 - Unibertsitatearen esparruan, Gipuzkoako campusean, gizarte-eraldaketaren arloan lanean ari diren edo arlo horretan lan egin nahi duten erakundeen berri eman eta haiek identifikatzea.
 - Parte hartzen duten eragileen arteko balizko sinergiak eta/edo ahalmenak aztertzea.
 - Etorbizunean koordinatzeko estrategia zehaztea.

5. Proposatutako programa:

15:00-15:40 Jardunaldiaren aurkezpena

Unibertsitatearen erronkak eta konpromisoak gaur egungo egoeran/gizartearen aurrean. UPV/EHU. Koldo Unceta

Gizarteak unibertsitateari egiten dizkion eskaerak (berretsi gabeko izenburua). Gipuzkoako GGKE

15:40-16:00 Galderak/ekarpenak.

16:00-17:00 Kafea-atsedenaldia eta posterrak aurkeztea ondoko helburuari



erantzuteko: "Unibertsitatearen esparruan, Gipuzkoako campusean, gizarteraldaketaren arloan lanean ari diren edo arlo horretan lan egin nahi duten erakundeen berri eman eta haiek identifikatzea."

17:00-18:00 Taldekako lana, ideiak sortzeko tailerra, parte hartzen duten eragileen arteko balizko sinergiak eta/edo ahalmenak aztertzeko helburuz.

- 12. tailerra "Prestakuntza"
- 2. tailerra "Ikerketa"
- 3. tailerra "Inguruarekiko harremana"
-

Oharra: Batzordekideek proposatu dute parte-hartzaileek tailerretan izena eman dezaten lehentasun-hurrenkerari jarraiki, gutxieneko parte-hartzaileen kopurua bermatzeko tailer bakoitzean. Helburua da tailer bakoitzetik bizpahiru proposamen ateratzea.

18:00-19:00 Iritziak bateratzeko saioa eta etorkizunean koordinatzeko estrategia baten proposamena egitea.

6. Iratxe Amianok idatziko du jardunaldira etortzeko gonbidapenaren testua. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak eta gizarte erakundeen batzorde koordinatzaileak, berriz, unibertsitate-komunitatea osatzen duten kide guztiei bidaliko diete.

Batzordekideek erabaki dute hurrengo bilera jardunaldia amaitu ondoren egitea, 2014ko otsailean, jardunaldiaren emaitzak ebaluatzeko. Gainera, batzordeburuak batzordekideei gogorarazi die bilera horretan batzordea berregituratzeko gaia jorratu behar dutela, 2013an aurkeztu diren bajak direla eta. Estibalizek inkesta egingo du batzordekide guztien agendak bateratzeko.

Aztertzeko beste gairik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da.